Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 15a, astelehena — 72 — Lunes, a 15 de abril de 2019



## ZARAUZKO UDALA

*Zarauzko Udalaren erabakia: udaltzainen lanpoltsa osatzeko oinarriak eta deialdia onartzekoa.*

Zarauzko Udaleko tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 8an egindako bilkuran erabaki zuen Zarauzko Udalerako udaltzainen lanpoltsa osatzeko prozesua arautuko duten oinarri zehatzak onartzea eta dagokion deialdia egitea.

Zarautz, 2019ko apirilaren 8a.—Alkatea. (2352)

*Zarauzko udalean indarrean dagoen udaltzainen lanpoltsa handitzeko oinarri espezifikoak.*

1. *Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da Zarauzko Udalean indarrean dagoen udaltzainen lan-poltsa handitzea, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez.

Berariaz jakinarazten da honako hauek indarrean jarraitzen dutela eta lehenago erabiliko direla:

— Zarauzko Udalean indarrean dagoen udaltzainen lan-poltsa (handitze honen aurretik dagoena).

— Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak osatutako lan-poltsa.

Oposizio faseko ariketa guztiak gainditzen dituzten izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, eta lan-poltsa horretan egoteak eskubidea emango die udaldiko beharrengatik, norbait ordezkatzeko edo beste edozein arrazoirengatik Udaltzaingoan sortzen diren pertsonal beharrak betetzeko deituak izateko, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran eta ondorengo baldintzetan:

2.545,05 euro gordineko soldata izango dute, eta C2 azpitaldean sartuko dira.

Zerrenda horretan dagoen izangairen batek, lanerako deitzen diotenean, bidezko arrazoirik gabe, kontratatzeari uko egiten badio, bere eskubideak galdu ditzake, eta zerrendatik kanporatu ahal izango da.

2. *Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Onartua izateko eta, horrela, oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

1. 18 urte beteta izatea, eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean.

2. Gutxieneko altuera hau edukitzea: gizonek 1,65 m eta emakumeek 1,60 m.

3. Eskola graduatua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokide bat edukitzea, edota horietakoren bat lortzeko eskubideak ordainduta izatea.

4. Medikuntzako bazterketen taulan sartuta ez egotea (uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren Hautespen eta Prestakuntza Araudia onartzen duena).

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Acuerdo del Ayuntamiento de Zarautz por el que se aprueban las bases y la convocatoria para la creación de una Bolsa de trabajo de Agentes de Policía Local.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 8 de abril de 2019, ha aprobado las bases específicas por las que ha de regir el proceso para la provisión de una bolsa de trabajo de Agentes de Policía Local para el Ayuntamiento de Zarautz, y realizar la oportuna convocatoria.

Zarautz, a 8 de abril de 2019.—El alcalde. (2352)

*Bases específicas para la ampliación de la bolsa de trabajo de Agentes de la Policía Local vigente del Ayuntamiento de Zarautz.*

1. *Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la ampliación de la bolsa de trabajo de Agentes de la Policía Local vigente del Ayuntamiento de Zarautz, a través del sistema de Concurso-Oposición.

Se hace constar expresamente la condición de mantener vigente y utilizar con carácter previo:

— La bolsa de trabajo de agentes de policía local vigente del Ayuntamiento de Zarautz, anterior a la presente ampliación.

— La bolsa de trabajo conformada por parte del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco.

Las personas aspirantes que superen todos los ejercicios de la Fase de Oposición formarán parte de una bolsa de trabajo que les dará derecho, en el orden de puntuación obtenido en el proceso selectivo, a ser llamados para cubrir todas las necesidades de personal que surjan en la Guardia Municipal, ya sean con motivo del periodo estival o por sustituciones u otras causas, con las siguientes condiciones:

Tendrán una retribución bruta de 2.545,05 euros. Serán encuadrados en el Subgrupo C2.

Si alguna persona aspirante incluida en la citada lista renuncia sin causa justificada a ser contratada en el momento de ser llamada para ello, podrá decaer en todos sus derechos y ser eliminada de la misma.

2. *Condiciones de las personas aspirantes.*

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en el Concurso-Oposición serán requisitos necesarios:

1. Tener 18 años de edad en la fecha en que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

2. Tener una estatura mínima de 1,65 m los hombres y 1,60 m las mujeres.

3. Estar en posesión o haber abonado los derechos para la obtención del título de Graduado Escolar, Formación profesional de 1er. grado o equivalente.

4. No estar incurso en el cuadro de exclusiones médicas que figura en el anexo del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco.

EK\CV GAO-I-2019-02352

5. Maltzurkeriazko delituagatik zigorrik jaso gabea izatea; Administrazio Publikoaren zerbitzutik baztertutakoa ez izatea; eta funtzio publikoan aritzeko gaitasungabetuta ez egotea.

Hala ere, arau penal eta administratiboen arabera, birgaitzearen onura aplikatu ahal izango da, baldin eta, izangaiak agiri ofizialen bidez egiaztatzen badu birgaitze hori.

6. Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik Euskal Herriko Polizia kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozesutik baztertutakoa ez izatea (baldin eta baztertzea aitortu zen egunetik zigorraren iraungipen-epea adinako aldia igaro ez bada).

7. Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, B motako gidabaimena edo baliokidea edukitzea.

8. Euskarari dagokionez, 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea edukitzea (mailari dagokion azterketa eginez egiaztatu ahal izango da baldintza hori; nolanahi ere, hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea duela egiaztatzen duenak ez du azterketarik egin beharko).

Azterketa hori Udal Euskaltegiak prestatu eta zuzenduko du, eta soilik euskararen ezagutza baloratuko du, hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko.

*3. Eskaerak.*

Oposizio-lehiaketan onartua izateko eskaerak alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek azaldu beharko dute betetzen dituztela Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza guztiak, beti ere eskaerak aurkezteko epea bukatzen deneko data erreferentziatzat hartuta. Horrez gain, lehiaketa fasean baloratuko diren merituak alegatuko dira, eta horiek egiaztatzen dituzten agiriak erantsi.

b) Eskaerak Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko dira (Kale Nagusia 29), astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik kontatzen hasi eta 10 egun naturaleko epean.

*4. Izangaien onarpena eta probak.*

Onartutako zein baztertutako izangaien zerrenda udaletxeko iragarki-taulan eta Zarauzko Udalaren web-orrian jarriko da (www.zarautz.eus).

Zerrendekin batera, probak egiteko lekua, eguna eta ordua ere iragarriko dira.

*5. Kalifikazio-epaimahaia.*

Kalifikazio-epaimahaia mahaiburu batek, hiru bokalek eta idazkari batek osatuko dute.

Epaimahaiak gai jakinetan adituak diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, egoki iruditzen zaion probetan.

Aldi berean egin ezin diren probetan, izangaiek alfabeto-hurrenkeraren arabera jardungo dute.

*6. Oposizio fasea.*

Oposizio faseak ondorengo ariketak izango ditu:

— Lehenengo ariketa: Ondorengo proba fisikoak egin beharko dira.

a) 1.000 metroko lasterketa.

b) 60 metroko lasterketa.

c) Igeriketa (50 metro).

Ariketa honetan Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango da, 1 eranskinean jarritako baremoa aplikatuz.

5. No haber sido condenado por delito doloso, ni separado del servicio de la Administración Pública ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquella se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte del aspirante.

6. No haber sido excluido de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

7. Estar en posesión del permiso de conducir de la clase B o equivalente, al término del plazo de presentación de solicitudes.

8. Tener conocimiento de euskera correspondiente al perfil lingüístico 2. (Este requisito podrá acreditarse mediante las correspondientes pruebas, estando exento de las mismas los aspirantes que acrediten estar en posesión de este perfil o equivalentes).

Dicho ejercicio se realizará por el Euskaltegi Municipal, a los solos efectos de la valoración de los conocimientos de euskera para poder continuar en este proceso selectivo.

*3. Instancias.*

Las instancias solicitando ser admitido al Concurso-Oposición se dirigirán al Sr. Alcalde-Presidente, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Segunda, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias. Asimismo, se harán constar los méritos a valorar en la fase de Concurso y se deberán adjuntar los documentos acreditativos de los mismos.

b) Las instancias se presentarán en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Zarautz (Kale Nagusia, 29), en horario de 7:30 a 15:00 horas, de lunes a viernes, en el plazo de 10 días naturales a contar desde la publicación de las presentes Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*4. Admisión de los aspirantes y celebración de las pruebas.*

La lista de aspirantes admitidos y excluidos será expuesta en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento de Zarautz (www.zarautz.eus).

Junto con las listas se anunciarán el lugar, día y hora del comienzo de celebración de las pruebas.

*5. Tribunal Calificador.*

El Tribunal Calificador estará constituido por un/a Presidente/a, tres vocales y un/a Secretario/a.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores expertos en la materia de que se trate.

La actuación de los aspirantes en aquellas pruebas que no pudieran ser desarrolladas de forma simultánea se efectuará por orden alfabético.

*6. Fase de Oposición.*

La Fase de Oposición constará de los siguientes ejercicios:

— Primer ejercicio: Consistirá en la realización de las siguientes pruebas físicas:

a) Carrera de 1.000 metros.

b) Carrera de 60 metros.

c) Natación: 50 metros.

Este ejercicio se calificará como Apto o No Apto, aplicándose el baremo establecido en el anexo 1.

EK\CV GAO-I-2019-02352

— Bigarren ariketa: herriaren eta bere inguruaren ezagutzari buruzko proba bat: kaleak, eraikin garrantzitsuak, erakunde publikoak, komunikazio-bideak, garraio publikoa, zerbitzuak, etab.

Ariketa hau baztertzailea izango da, eta 0tik 10 puntura kalifikatuko da. Hurrengo probara pasatzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

— Hirugarren ariketa: Epaimahaiak proposatutako proba praktiko bat ebatzi beharko da, idatziz, gehienez ere ordu erdian. Probak zerikusia izango du lanpostuaren jardueran sor daitezkeen egoerekin.

Ariketa hau baztertzailea izango da, eta 0tik 10 puntura kalifikatuko da. Hurrengora pasatzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

— Laugarren ariketa: Honako arauen ezagutzari buruzko proba egingo da: udal ordenantzak, Zirkulazio Kodea, 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua.

Ariketa hau baztertzailea izango da, eta 0tik 10 puntura kalifikatuko da. Gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

— Bosgarren ariketa: Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da (euskara-gaitasuna).

Ariketa hau baztertzailea izango da izangai guztientzat, eta Gai edo Ez Gai kalifikatuko du epaimahaiak.

Azkenik, Epaimahaiari egokia iruditzen bazaio, elkarrizketa pertsonalak egin ahalko dira. Horien helburua izango da frogatzea ea izangaien profil profesionala eta gaitasunak ondo egokitzen diren lanpostuaren zereginekin.

*7. Oposizio fasearen garapena.*

Kalifikazio-epaimahaiak alda dezake Seigarren Oinarrian probak egiteko adierazitako hurrenkera, eta erabaki dezake, baita, proba bat baino gehiago egun berean egitea. Kasu horretan, aurreko probak gainditu dituztenen ariketak bakarrik baloratuko ditu.

Epaimahaiak egindako deian adierazitako lekuan, egunean eta orduan bertaratzen ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behin betiko, nahiz eta ezinbesteko arrazoiengatik izan.

*8. Lehiaketa fasea.*

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiek lehiaketa fasean parte hartuko dute, eta jarraian adierazten diren merituak baloratuko zaizkie:

— Administrazio Publikoan Udaltzaingoko lanpostuetan egindako zerbitzuak: lan egindako hilabete bakoitzeko 0,5 puntu (gehienez 6 puntu).

— A-1 mailako gidabaimena izatea: 1 puntu.

— Sorospenari buruzko edo babes zibilarekin lotutako beste edozein arlori buruzko ikastaro ofizialen bat eginda edukitzea: gehienez 2 puntu, baremo honen arabera:

20 ordutik beherakoa: 0,50 puntu.

20 ordutik gorakoa: 1 puntu.

— 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea: 3 puntu.

*9. Izangaien hautaketa eta epaimahaiaren proposamena.*

Hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuen batuketak emango du izangai bakoitzaren azken kalifikazioa, aurreko paragrafoetan adierazitakoarekin bat etorriz.

Proben eta merituen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerrendaren proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari. Zerrendak puntuazio-hurrenkera zorrotza jarraituko du, eta Lehen Oinarrian adierazitako lan-poltsa osatzeko erabiliko da.

— Segundo ejercicio: Consistente en la realización de una prueba sobre conocimiento de la villa y su entorno: calles, edificios de importancia, organismos públicos, vías de comunicación, transporte público, servicios etc.

Este ejercicio será eliminatorio y se calificará de 0 a 10 puntos, debiendo obtenerse un mínimo de 5 para pasar al siguiente.

— Tercero ejercicio: Consistente en resolver, en el plazo máximo de media hora, una prueba escrita de carácter práctico propuesta por el Tribunal que guardará relación con las situaciones que pueden plantearse en el desempeño del puesto de trabajo.

Este ejercicio será eliminatorio y se calificará de 0 a 10 puntos, debiendo obtenerse un mínimo de 5 para pasar al siguiente.

— Cuarto ejercicio: Consistente en la realización de una prueba sobre conocimiento de las ordenanzas municipales y del Código de Circulación, Real Decreto Legislativo 6/2015 y Real Decreto 1428/2003 de 21 de noviembre.

Este ejercicio será eliminatorio y se calificará de 0 a 10 puntos, debiendo obtenerse un mínimo de 5 para superarlo.

— Quinto ejercicio: Acreditación del perfil lingüístico.

Consistirá en una prueba dirigida a acreditar el perfil lingüístico 2 (conocimiento de euskara).

Este ejercicio será eliminatorio para todos los aspirantes, y se calificará como Apto o No Apto.

Finalmente, si el Tribunal lo considera oportuno, se podrán realizar Entrevista personales, con el fin de contrastar la adecuación del perfil profesional y aptitudes de los candidatos para el mejor desarrollo de las funciones del puesto.

*7. Desarrollo de la oposición.*

El Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas en orden diferente al previsto en la Base Sexta, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. En este caso, sólo entrará a evaluar cada prueba, respecto de los que hayan superado la anterior.

Las personas aspirantes que no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de los ejercicios en el lugar, fecha y hora que se señale, incluso por razones de fuerza mayor, serán definitivamente excluidos del procedimiento selectivo.

*8. Fase de Concurso.*

Los aspirantes que superen la Fase de Oposición accederán a la Fase de Concurso, en la que se valorarán los siguientes méritos:

— Servicios prestados a la Administración Pública en puestos de la Policía Municipal: 0,5 puntos por mes de servicios, hasta un máximo de 6 puntos.

— Poseer el carné de conducir A-1: se valorará con 1 punto.

— Haber realizado algún cursillo oficial sobre socorrismo o cualquier materia relacionada con protección civil, hasta un máximo de 2 puntos, de conformidad con el siguiente baremo.

Hasta 20 horas de duración: 0,50 puntos.

A partir de 20 horas: 1 punto.

— Acreditación de perfil lingüístico 3 o equivalente: 3 puntos.

*9. Selección de aspirantes y propuesta del Tribunal.*

La calificación final de cada aspirante estará constituida por la suma de las obtenidas en el conjunto del proceso selectivo, en los términos señalados en los párrafos precedentes.

Finalizada la calificación de las pruebas y méritos, el Tribunal formulará a la Junta de Gobierno Local propuesta de lista definitiva, en riguroso orden de puntuación, para la confección de la ampliación de la bolsa de trabajo mencionada en la Base Primera.

EK\CV GAO-I-2019-02352

*10. Agirien aurkezpena eta kontratazioa.*

Epaimahaiak proposatutako izangaien zerrendak jendaurrean jarri eta 3 egun balioduneko epean, hautatuek Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak.

Eskatutako epean agiri horiek aurkezten ez dituztenek edo, agirien azterketaren arabera, oinarrietan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutenek ezin izango dute lan-poltsa osatu, eta horien jarduera guztiak baliogabetu egingo dira, hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari utzi gabe.

*11. Gorabeherak.*

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta hautaketa-prozesua egokiro egiteko beharrezko akordioak hartzeko. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, ordezko arau hauek aplikatuko dira: martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua (Estatuko Administrazioaren zerbitzupeko pertsonalaren sarrera arautzen duen Erregelamendu Orokorra onesten duena), uztailaren 6ko 6/1989 Legea (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) eta bat datozen xedapenak.

*12. Inpugnazioak.*

Bai deialdi hau bai bertatik edo epaimahaiaren jardueratik sortutako administrazio-egintza guztiak inpugnatu ahalko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen kasuetan eta moduan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

1 ERANSKINA

PROBA FISIKOETARAKO BAREMOA

1) 1.000 metroko proba - gehienezko denbora: gizonentzat, 4’30”; emakumeentzat, 5’30”.

2) 60 metroko proba - gehienezko denbora: gizonentzat, 10”; emakumeentzat, 11”.

3) Igeriketa proba: 50 metro, gehienezko denborarik gabe.

*10. Presentación de documentos y contratación.*

En el plazo de 3 días hábiles desde que se hicieran públicas las listas de aspirantes propuestos por el Tribunal, los seleccionados deberán presentar en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Zarautz la documentación que acredite que reúnen las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.

Quienes dentro del plazo indicado no presentasen la documentación, o del examen de la misma se dedujera que carecen de alguno de los requisitos exigidos en las bases, no podrán formar parte de la bolsa de trabajo ampliada y quedarán anuladas con respecto a los mismos todas las actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieran incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

*11. Incidencias.*

El Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo. En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación supletoria lo dispuesto en el Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de ingreso del personal al servicio de la Administración del Estado, la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y disposiciones concordantes.

*12. Impugnaciones.*

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

ANEXO 1

BAREMO PARA LAS PRUEBAS FÍSICAS

1) Prueba de 1.000 metros-tiempo máximo: hombres, 4’30”; mujeres, 5’30”.

2) Prueba de 60 metros-tiempo máximo: hombres, 10”; mujeres, 11”.

3) Prueba de natación: 50 metros sin tiempo máximo.

EK\CV GAO-I-2019-02352